



Adimen artifiziala eta mugaz gaindiko lankidetzak: azpiegitura linguistikoa, adimendun eta irisgarri baten bidean

Eka. 17 - Eka. 18 2021

Kod. Z05-21

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2021

Jarduera mota

Workshop

Data

Eka. 17 - Eka. 18 2021

Kokalekua

Pau, eka. 17 eta Miramar Jauregia eka. 18

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu



CONGRESO TRANSFRONTERIZO

MUGAZ GAINDIKO KONGRESUA

CONFÉRENCE TRANSFRONTALIÈRE

Inteligencia artificial y cooperación transfronteriza: hacia una infraestructura lingüística, inteligente y accesible

Adimen artifiziala eta mugaz gaindiko lankidetzak: hizkuntza-azpiegitura adimentsu eta irisgarri baterantz

Intelligence artificielle et coopération transfrontalière : vers une infrastructure linguistique, intelligente et accessible



Pau
Donostia

2021/06/17
2021/06/18



Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Ekainaren 17an, Workshop-a streaming-ez jarraituko da eta ekainaren 18an, aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

POCTEFA lurraldea eraikitzen ari diren mugaz gaindiko egitasmoa da, eta bertan bizi diren 15 milioi biztanlek baino gehiagok 6 hizkuntza eta horien tokiko aldaerak partekatzen dituzte. Eleaniztasuna gure lurraldeko aktiborik handienetakoa bat den arren, eskuartean dugun aberastasuna egoki kudeatzea erronka handia da kultura eta ekonomiaren ikuspegitik kohesionatutako lurralde bat sortu nahi bada.

Adimen artifiziala gure egunerokoan nagusi diren produktu digital askotan erabiltzen da, izan ere, gehienak hizkuntzaz baliatzen baitira. Komunikazio mugikorrek, sare sozialek, laguntzaile adimendunek eta ahotsean oinarritutako interfazeek herritarrek, enpresek eta administrazio publikoek mundu digitalean jarduteko duten modua aldatzen ari dira.

Hizkuntza-teknologiek POCTEFA lurraldeko herritar guztien berdintasuna lortzen lagundu dezakete, hitz egiten duten hizkuntzak edozein direla ere komunikazioa eta harremanak errealitatea izan daitezen. Baliabide urriko hizkuntzak dira gehien irabazteko dutenak, baina tamalez teknologia, tresna eta baliabide gutxi dituzte oraindik.

Hizkuntza baten osasuna eta bizitasuna zuzenki loturik dago egun hizkuntza horrek ingurune moderno eta aldakorretan, hala nola mundu digitalean, erabilgarria izatearekin, nahikoa garapen teknologiko izatearekin. Honenbestez, mugaz gaindiko azpiegitura linguistikoa aurreratua eraikitzea langintza ezinbestekoa da. Ez bakarrik hizkuntzen biziraupenerako, berebiziko garrantzia du hizkuntza-hesiak hausteak eta POCTEFA lurraldeak duen balio ekonomiko, kultural eta linguistikoa guztia balioesteko. Lurralde kohesionatu, adimentsu eta irisgarri bat eraikitzeko.

Helburuak

LINGUATEC bezalako mugaz gaindiko proiektuen beharra balioan jartzea eta transmititzea, gure lurraldearen aberastasun linguistikoak balio ekonomikoa, turistikoa eta kulturala sortzen baitu. Hau da, gure lurraldearen hizkuntza-hesia gainditzea eta lurraldearen potentzialitate ekonomiko, kultural eta linguistikoak baliatzea.

Euskararen, katalanaren, aragoieraren eta okzitanieraren eta haien aldaeren arteko lankidetzari balioa ematea, herritar orok beren hizkuntzan mundu digitalean jarduteko aukera izan dezan eta baliabide urriko hizkuntzek oinarri teknologiko oparoa izan dezaten.

Adimen artifizialak hizkuntza eskaintzen dizkigun aukerak eta ahalmenak gizarteratzea, lurralde kohesionatua, inklusibo, eleaniztuna eta adimenduna lortzeko. Laster ikusi eta erabili ahal izango ditugu esaterako, Linatec proiektuaren bidez garatu diren hizkuntzen arteko itzulpen automatikoa, ahots-ezagutzaileak, hizketa-sintetizadoreak eta gida eleaniztun inklusiboak.

Batzorde zientifikoa:

- Josu Aztiria Urtaran (Elhuyar Fundazioa. Adimen Artifiziala Hizkuntza koordinatzailea eta Linatec proiektuko zuzendaria)
- Benaset Dazeas (Lo Congrès permanent de la lenga occitana. Zuzendaria)
- Jose Ignacio López Susin (Aragoiko Gobernua. Hizkuntza Politikako Zuzendari Orokorra)
- Kepa Sarasola (UPV/EHU. Doktorea eta ikertzailea IXA taldean)
- Jean-Baptiste Coyos (Euskaltzaindia. Euskaltzaina y Euskaltzaindiaren ordezkaria Ipar Euskal Herrian)
- Myriam Bras (Université Toulouse Jean Jaurès, CLLE-ERSS. Linguistikan irakaslea eta ikertzailea)

Ikastaroaren laguntzaile espezifikak



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Zuzendaritza



Josu Aztiria Urtaran

Elhuyar Fundazioa

Humanitateak-enpresa lizentziatuta. Bi master ditu kudeaketan: Antolamendu eta kudeaketa aurreratuan; eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeen kudeaketa. Elhuyar Fundazioan Adimen Artifiziala unitateko zuzendaria da, eta adimen artifiziala eta hizkuntza-teknologiekin lotutako I+G proiektu nagusien koordinatzailea. 4 urte eman ditut Hizkuntza eta Teknologia unitateko zuzendari bezala Elhuyarren, 7 urte Elhuyar Fundazioko Hizkuntza Zerbitzuak saileko arduraduna izan da eta 3 urtez Donostiako Ilazki Euskaltegiko zuzendaria Elhuyarreko zuzendaritza-talde kidea da eta Euskal Herriko Hizkuntzen Industria biltzen duen Languneko zuzendatzitzako kidea ere bada.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2021-06-18 ARTE

OROKORRA

0 EUR

ONLINE ZUZENEAN

2021-06-18 ARTE

OROKORRA

0 EUR

Kokalekua

Pau, eka. 17 eta Miramar Jauregia eka. 18

Gipuzkoa